

GESTIÓN DE RIESGOS Y ADAPTACIÓN AL CAMBIO CLIMÁTICO A NIVEL (2025/64/4/2)

Ekitaldiaren deskribapena

Klima-aldaketa erronka globala da, eta premiaz heldu behar zaio. Tokiko erakundeak funtsezko eragileak dira klima-politikak planifikatzeko eta aurrera eramateko, bereziki klima-aldaketaren inpaktu negatiboak murriztuko dituzten egokitzapen-neurriak.

2024ko urtarrilean, Eusko Legebiltzarrak, gehiengo zabalarekin, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legea onartu zuen. 15. artikuluan, Legeak plangintzako funtsezko tresnak jasotzen ditu, besteak beste, lurralde historikoek eta toki-erakundeek garatu beharreko klima- eta energia-planak. Legeak plan horien gutxieneko edukiak ere jasotzen ditu, besteak beste, elementu kalteberak identifikatzea eta ezaugarritzea (18. irudia).

Indarrean dagoen legeriak dakartzan betebeharrak kontuan hartuta, ikasturte honen helburua zubi bat ezartzea da, eremu akademikoan kalteberatasun hidrikoaren arloan sortutako ezagutza eta udalerrien plangintza- eta kudeaketa-beharrak bi norabidetan lotzeko. Lurraldearen urrakortasun hidrikoa azter daitekeen zabaltasunetik abiatuta, lehenengo ikastaro honetan klima-aldaketaren ondorioak, baliabide hidrikoen eskuragarritasuna eta hiri-plangintza aztertuko dira.

Arloa: Prestakuntza - Ingurumen

Modalitatea: Aurrez aurrekoa

Hartzaileak:

Udaletan arlo honetan erantzukizun teknikoa duten pertsonak.

Egutegia:

Ikastaroaren egunak: azaroaren 11, 12a

Ordutegia: 09:00 - 14:00

Iraupena: 10 ordu

Izena emateko epea: 2025eko ekainaren 3tik urriaren 27ra

Baja emateko azken eguna: 2025eko azaroaren 10a

Hizkuntza: gaztelera

Programa

Azaroak 11: Arriskuen kudeaketa Euskadin

Ordua	Hizlaria	Gaia
09:00-09:15	EHU	Aurkezpena/helburuak/Jardunaldi-plana
09:15-10:00	José Antonio Aranda Euskalmeteko Zuzendaria	Alerta- eta informazio-sistemak Euskadin
10:00-10:45	Plangintza Zerbitzuko burua Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza	Larrialdien plangintza
10:45-11:30	Santos González Fisika Saila, EHU	Eredu klimatikoak: etorkizunerako proiekzio klimatikoak ulertuta
11:30-12:00	Kafe etenaldia	
12:00-12:45	Iñaki Antigüedad Geologia Saila, EHU	Lurraldearen urrakortasun hidrikoa
12:45-13:30	Jose María Sanz de Galdeano	Ur-kalteberatasuna kudeatzeko tresnak

	Director de Planificación y Obras URA, Agencia Vasca del Agua	(uholde-arriskua kudeatzeko plana, ibaien eta erreken LAP, hezeguneen LAP).
13:30 – 13:40	Ondorioak eta amaiera	

Azaroak 12: Klima-aldaketara egokitzea bultzatuz

Ordua	Hizlaria	Gaia
09:00-09:15	EHU	Jardunaldiaren plana
09:15-10:00	Ane Zabaleta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila, EHU	Espacios de Prioridad Hidrológica: Zonas de Protección de Captaciones
10:00-10:45	Maite Meaurio Geologia Saila, EHU	Sistemas de Drenaje Sostenibles
10:45-11:15	Benjamín Tejerina Soziologia Saila, EHU	Percepción y opinión pública sobre cambio climático
11:15-11:45	Kafe etaldia	
11:45-12:15	Marta Olazabal Basque Centre for Climate Change (BC3)	Egokitzapenaren tokiko plangintza, 1/2024 Legearen esparruan. Europako esperientziak
12:15-13:45	Udal esperientziei buruzko saioa	
	· Bakioko Udala: Amets Jauregizar · Sukarrietako Udala: Jaime Ortuella · Neiker: Nahia Gartzia	Larrialdien kudeaketaren eta udalerrietara egokitzearen adibideak Udalaren arazo espezifikoak ur-kalteberatasunari dagokionez
	Hizlariekin eta bertaratuekin alderatzea eta eztabaida	
13:45-14:00	Ondorioak eta jardunaldiaren amaiera	

Oharrak

Antolatzaileak:

Eudel

UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Ihobe

Informazio zehatza

Gela:

EUDEL

Lekuaren xehetasun gehiago:

ERCILLA 13 - BILBAO, PK: 48009

Izen ematea

Prezioa

119,70

Prezio publikoen agindua

Agindua, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

Jarraibideak

Toki entitateetako prestakuntzako koordinatzaileek eman beharko dute izena, IVAPeko "Solaskidegune" aplikazioan.